

6. JARDUERA: GELAN LANDAREN BAT HAZI

Ariketa honekin hurrek ikasiko dute landare batek egiten duen eboluzioa modu praktikoa batean, naturan gertatzen den bezala.

Ariketa honela burutuko da: Papera edo kotoia urez busti (blai egin gabe ordea), eta kristalezko ontzian sartu behar da (paperak erabat estali beharko du barrutik ontzia). Babarrun aleak paperaren eta ontziaren paretaren artean jarri behar ditugu, babarrunari zer gertatzen zaion ikusterik izan dezagun. Aste baten epean hazian izan diren aldaketak ikusiko ditugu: sustraia, zurtoina eta, geroago, hostoak nola hazten diren.

Haur bakoitzak bere hazi propioa izateko aukera izango du kristalezko botila bakoitzean bere izenak ipiniz.

Egunero haziaren garapena ikusteko aukera izango dute eta ureztatzen joango dira. Proiektua bukatzerakoan, hazia etxera eramateko aukera izango dute.